





7

Galtzagorriak

- 1 Behin bazen Kotte izeneko gizon bat, Getarian bizi zena.
Bizi guzian zorte txarrekoa izan zen. Azak landatzen zituelarik, harri erauntsi batek xehatzen zizkion. Neguko egur anitz biltzen baldin bazuen, negu horretan ez zen hotzik izaten.
- 5 Orduan, asperturik, bere zoritxarra gainditu nahian, sorgin batengana joan zen. Kotteren azalpena entzun eta, sorginak erran zion:
-Lagunduko zaitut. Baionan **orratzontzi** magikoak saltzen dituen dendari bat bada. Saltzailea aztia da. Zoaz eta erran iezaiozu ene partez, galtzagorri bete orratzontzi bat nahi duzula.
- 10 Erran eta egin. Gure gizona Baionara joan zen eta sorginak aipatu dendan, orratzontzi miresgarria erosi zuen. Dendariak hau erran zion:
-Galtzagorri ttipi horiek beti lanean izan behar dira. Bestenaz bazter guziak nahas litzakete.
Kotte etxera itzuli zen eta galtzagorriak lanean ezarri zituen.
- 15 -Alor honetan piperrak landa itzazue! -manatu zien Kottek.
Galtzagorriak alorrera joan ziren eta lana berehala bukatu zuten.
Orduan Kotteri galdegin zioten:
-Zer egin behar dugu orain?
-Teilatua konpon ezazue, belarra motz, ura ekar, kabalak bil, gasna egin, jantzi zaharrak petatxa!
- 20 Anitz lan agindu zien baina eguerdi gabe etxaldeko lan guziak eginak ziren eta galtzagorriak berriz ere galdezka hasi ziren:
-Zer egin behar dugu orain? Zer egin behar dugu orain?
Kottek ez zekien zer mana eta galtzagorriak goizeko lanen desegiten hasi ziren. Orduan Kotteri ideia bat bururatu zitzaion.
- 25 -Har ezazue pasadera hau, zoazte iturrira eta ekar ezazue ura!
Galtzagorriak laster abiatu ziren iturrira, baina behin eta berriz entseatuz ere, ura ziloetatik eskapatzen zen.
-Agindu duzun lana ezinezkoa da! Beraz hemendik betiko ihes egingen dugu! -erran zioten galtzagorriek haserre bizian.
- 30 Eta hala egin zuten, behin betiko desagertu ziren. Orduan, Kotte gaixoa, lehen bezala gelditu zen, lan guziak berak egin behar!
Hala ere, laster kontsolatu zen. Egia erran, nahiago zuen bakarrik egon, galtzagorrien laguntza ukan baino...

Ipuin herrikoia, Ikasek moldatua


orratzontzi: josteko orratzen biltzeko ontzia





Testuan sar zaitez

- Nor da pertsonaia nagusia?
- Nor dira beste pertsonaiak?
- Non iragaten da istorioa, zer tokitan? Kotteren bidaia marraz ezazu Euskal Herriko mapan.
- Istorio hori duela guti gertatua da ala aspaldi?



Testuko hitzak

«Bazter guziak nahas litzakete» (12. – 13. lerroak). Erran-molde hori beste gisa batez adieraz ezazu.

AB
C

Hiztegia aberats ezazu

- 1 Erranaldi hauek berridatz itzazu beltzez den hitzaren aurkako erran-nahia adieraziz.

Kottek ez du **zorte onik**.
Kottek orratzontzia ez du **saldu**.
Negu hartan ez zuen **hotzik** egin.
Galtzagorriak **beti** lanean ari dira.
Galtzagorriak **ez dira batere kontent**.

Kottek ez du **zorte txarrik**.
Kottek
Negu hartan
Galtzagorriak
Galtzagorriak

- 2 Hitzak osa itzazu ereduari jarraikiz.

orratzen ezartzeko ontzia
loreen ezartzeko ontzia
itsasoan ibiltzen den ontzia
landareen ureztatzeko ontzia
zikinen ezartzeko ontzia

orratzontzia

.....
.....
.....
.....





Testua uler ezazu

1 Testua uler ezazu zatiak elkarri josiz.

2 Testuko zatiak eta irudiak motz itzazu eta taulan kola, gertakariak ordenan izan daitezen.



3 Etiketak lot itzazu, hastapeneko egoeraren atzemateko.

Harri erauntsia izan zen

ondorioz

teilatua zilatua zen.

Neguan ez zuen hotzik egin

ondorioz

azak xehatu ziren.

Tximistak etxea jo zuen

ondorioz

sobera egur bildu zuen.

4 Testuan Kotteren aginduak gainmarka itzazu.

Etxaldearen irudiari so eginez (183. or.), Kottek egin zitzakeen beste agindu batzuk idatz itzazu.

5 Zuzen diren erranaldiak kopia itzazu. Oker direnak zuzen itzazu.

- Kottek lanean zorte ona baitu, Baionara doa sorgin batengana.
- Sorginak Kotteri erran zion bere arazoen konpontzen lagunduko zuela.
- Dendariak ez zuen orratzontzi miresgarririk saldu nahi.
- Etxera heltzean, orratzontzia ireki zuen eta lau galtzagorriak atera ziren.
- Kottek etxeko lanen egitea agindu zien.
- Galtzagorriek lan guziak berehala egin zituzten.
- Baina laster akitu ziren.
- Etxetik ihes egin zuten, Kottek ez baitzien lanik eman.
- Egun hartatik landa, Kottek lan guziak egin behar izan zituen.

6 Bukaeran (30.-33. lerroak) Kotte lasaiago da. Zergatik, zure iduriko?



Irakurtzen eta idazten treba zaitez

1 Irakurketa baltsan

2 Erranaldi hauek bederazka irakur itzazu, hastapenetik bukaeraraino gelditu gabe.

- Azak harri erauntsiengatik xehatu ziren.
- Kottek orratzontziaren emateko erran dio.
- Orratzontzia sorgindua da.
- Behin eta berriz entseatu ziren.

3 Xerka eta harrapa: letra zopa



Ahozko adierazpena



1 Agindu hauek irakur itzazu doinua azkartuz harridura markan (!). Beste batzuk asma ditzakezu.

- Alor honetan piperrak landa itzazue!
- Kabalak bil itzazue!
- Ura ekar ezazue!
- Gasna egin ezazue!
- Belarra motz ezazue!

2 Gogoz ikas ezazue eta binaka antzez: *Pettanen bizikleta*

Pettan: –Otoi, Pantxika, **erraiozu** zure aitari nire bizikleta konpontzeko.

Pantxika: –Ados, erranen diot. **Ekarrazu** beraz bizikleta gure etxera!

Pettan: –Bai bihar goizean ekarriko dut. Ez **ezazu** ahantz garajeko atea irekirik uztea!

Pantxika: –Alabaina! Dei **ezazu** etxera jin baino lehenago!



Idatz ezazu

Idatz itzazu bospasei lerroz beste gertakari batzuk, agintera erabiliz.

Kasu! Bukaera aldatua da, beraz gertakariak ere aldatu behar dira.

Gertakariak: Galtzagorriek lan guziak bukatu zituzten. Kottek ez zekien zer egin. Beti galdezka ari ziren: Zer egin behar dugu orain? Zer egin behar dugu orain?

Orduan...

Bukaera: Azkenean galtzagorriak biziki kontent ziren eta betiko gelditu ziren etxaldean.



Hizkuntza azter ezazu

1 Tresna hitzak: behin eta berriz - behin betiko (berrikusketak)

2 Diktaketa: Aginduak eta harridura marka (!)

Zoaz okindegira eta bi ogi eros itzazu otoi! Har ezazu dirua ene moltsan!
Kasu **emazu** bidean, auto anitz bada! **Ez ezazu ahantz** milesker erratea!



3 Gramatika

Erranaldiak osa itzazu aditza pluralean emanez.

Dendariak orratzontzi **bat** eman **zuen**.

Dendariak orratzontzi**ak** eman **zituen**.

zituzten

nituen

zituen

zenituen

zituzten

genituen

Galtzagorriek gasna **bat** egin **zuten**.
Galtzagorriek lan **guziak** egin

Zuk ura ekarri **zenuen**.
Zuk urontzi**ak** ekarri


Guk egurra bildu **genuen**
Guk ardiak bildu

Nik teilatua konpondu **nuen**.
Nik leiho**ak** konpondu.....

Kottek artoa landatu **zuen**
Kottek azak landatu

Lagunek baloi **bat** ekarri **zuten**.
Lagunek pilot**ak** ekarri.....





© C. Labat